

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1913

55/2020 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretua bigarren ez aldatzen duena.

Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren helburua da, lehenengo artikuluan jasota dagoenez, bederatzi eduki arautzea. Lehenengo eta behin, 1. paragrafoan adierazita dauden bi eduki orokorrak arautzen dira: batetik, herritarrek Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez jarduteko eskubidea, bai zerbitzu publikoetara iristeko, bai administrazio-prozedurak izapidetzeko, eta, bestetik, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6. artikuluan adierazitako gainerako eskubi-deei zabalkundea ematea. Eta, bi horietaz gain, 2. paragrafoan adierazitako beste zazpi eduki zehatzago hauek jorratzen dira: egoitza elektronikoa; iragarki-taula elektronikoa; herritarren eta Administrazioaren identifikazioa eta autentifikazioa; ordezkarien erregistro elektronikoa; erregistro elektronikoa; komunikazio elektronikoak; dokumentu elektronikoak eta dokumentuon kontserbazioa.

Gai horiek funtsezkoak dira gure Administrazioaren jarduketetarako, zerbitzu publikoak emateko eta izapidetzen dituen administrazio-prozedurak kudeatzeko, eta lotura daukate Internet bidezko informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenarekin, Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko harremanetarako modu berria den aldetik; izan ere, lortu nahi da izapidetze elektronikoa gaur egun jarduteko ohiko modua izatea eta orain gutxi arte gure ordenamendu juridikoan ohikoa zen paperezko izapidetzea baztertu ahal izatea.

Dekretua baliagarria izan da indarrean egon den urte hauetan –zazpi baino gehiago–, eta aurrera egin du Administrazio Publikoan bitarteko elektronikoak erabil daitezten sustatzeko helburu horretan. Horren froga da, gaur egun arte, eduki horietan alde zuzeneko aldaketa bakar eta oso zehatz bat egin behar izana; izan ere, egoitza elektronikoaren helbidearen izendapena baino ez da aldatu, 7. artikuluen 5. paragrafoan, eta Interneteko goi-mailako «euskadi.eus» domeinu berria ezartzen duen ekainaren 9ko 84/2015 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenaren bidez aldatu zen. Gauzak horrela, dekretu horren bigarren aldaketa egingo da orain, aldaketa zabalago bat, ondoren justifikatzen dena.

Gure ordenamendu juridikoan, orain dela gutxi, administrazio elektronikoaren arloari loturiko legedi-aldaketa garrantzitsu batzuk egin dira; izan ere, 2016ko urriaren 2an, administrazio-zuzenbidearen oinarritzko bi arau berri hauek jarri ziren indarrean: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea. Lege bi horiek aldaketa garrantzitsuak ekarri dituzte eduki juridikoetara, 21/2012 Dekretuan ere araututa zeudelako, eta, ondorioz, besteak beste, arau hauek indargabetu dituzte: Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa Izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea –erregelamenduan garatu zen araua zen–, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea –prozeduren paperezko izapidetzea baino ez zuen xedatzen–.

Lege horiek indarrean jarri ostean, apurka-apurka administrazio-ordenamendu juridikoa egokitzeko lanari ekin zaio, legeotako edukien helburu handiak eta paradigma berriak lortze aldera, administrazio publikoetan funtsezko aldaketa bat eragin behar baita harreman elektronikoa izan

dadin administrazio-prozedurak izapidetzeko bidea, paperik gabeko administrazio garden, arinago eta irisgarriago batera zuzendua, herritarrentzat eta enpresentzat.

Horretarako, ezinbestekoa da, batez ere, arauz garatzea sistema teknologikoen alderdi teknikoak, prozedurakoak, juridikoak eta antolamendukoak, eta, horretarako, herritarrak, eragile juridikoak eta administrazio publikoak kontuan hartuta, bateragarriak izan behar dute, batetik, eskubideen baliatze erabatekoa eta prozeduren balio juridikoa bermatzeak eta, bestetik, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak ezartzen duen eskumen-banaketa errespetatzen duen benetako elkarreragingarritasuna izateak.

Testuinguru horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea garatzen dituen errege-dekretuaren proiektua izapidetzen ari da, sektore publikoak bitarteko elektronikoen bitartez jarduteari eta funtzionatzeari dagokienez. Aurrerago egingo den erregulazio horretan, Estatuko oinarrizko legegintzako erregelamendu-garapena jasoko da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan xedatutakoaren babesean eginda; artikulua horrek Estatuari eskumena esleitzen dio administrazio publikoaren araubide juridikoaren oinarriak emateko, eta, orobat, eskumena esleitzen dio administrazio-prozedura erkidearen arloan eta administrazio publiko guztien erantzukizun-sistemaren arloan.

Lan horiek egin bitartean, urriaren 1eko 39/2015 Legeari aldaketa bat egin zaio abuztuaren 31ko 11/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez (dekretu horrek langileekiko pentsio-konpromisoak babestearen, kapital-zuriketa prebenitzearen eta hirugarren herrialdeetako nazionalen sarrera- eta bizileku-eskakizunen arloko zuzentarauen transposizioa egiten du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzen du). Hain zuzen ere, haren 6. artikuluan xedatu da ez duela eragin juridikorik izango 2020ko urriaren 2ra arte, hauei dagokienez soilik: ahalordeen erregistro elektronikoa, erregistro elektronikoa, enplegatu publiko gaituen erregistroa, Administrazioaren irispide-puntu elektronikoa nagusia eta fitxategi elektronikoa bakarrik. Hau da, atzeratu egin da arlo horietan izan beharreko eragin juridikoa, hasiera batean, 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenaren arabera, 2018ko urriaren 2an izan behar zuen eragina eta. Denbora-tarte horretan, arlo horiei dagokienez, 30/1992 Legearen eta 11/2007 Legearen arauak indarrean segituko dute, horrela baitago adierazita 39/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrean eta xedapen indargabetzaile bakarraren 2. paragrafoan. Horrela, berriro baliatu da Kode Zibilaren 2. artikulua salbuespena, vacatio legis delakoaren jatorrizko bi urteko epea bikoizteko, bost konponbide informatiko horiek arautzen dituen araudiaren ondorio juridikoetarako. Horretaz gain, lehen urte bat zegoen aurreikusita lege oro indarrean jartzeko, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, eta bete egin zen 2016ko urriaren 2an, azken xedapenetako zazpigarrenarekin bat.

Justifikazio gisa, 11/2018 Errege Lege Dekretuaren hitzaurrean xedatuta dago ezen ez zela nahikoa urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenean ezarritako «vacatio legis» delakoa, ezinezkoa zelako epe horretan bai administrazio-prozedurak egokitzeko lana egitea, bai administrazio publikoaren jardunaren garapen-egoera berria zuzen kudeatzeko prozesuak diseinatzea; izan ere, garapen teknologiko eta juridikoek behar besteko heldutasuna izan behar dute errekerimenduak betetzeko; beraz, denbora gehiago behar da, eta V. tituluaren beste bi urtez luzatzen da.

Guztira bost urte daukan vacatio legis honek agerian uzten du zeinen konplexua den administrazio elektronikoen gaineko arauak aplikatzea, administrazio-prozeduran erabili behar diren bost sistema edo konponbide horiei dagokienez behintzat, ordurako euren edukietan zehaztasun handiagoa izango delakoan.

Legedi-aldaketak gertatu diren honetan, eta 21/2012 Dekretuaren indarraldian, honako hauek ere onartu dira: batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 910/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko uztailaren 23koa, identifikazio elektronikoiari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoiarako konfiantzako zerbitzuei buruzkoa dena eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena –eIDAS Erregelamendua esaten zaio–, eta lege-esparru erkidea ezartzen die Europar Batasuneko sinadura elektronikoei; eta, bestetik, berriki eman den abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

Horrenbestez, orain ez da une egokia gure autonomia-erkidegoan dekretu bat onartzeko, gai horren arauzko erregulazio osoa egingo duena eta, ondorioz, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua baliogabetuko duena. Errealitate horri erreparatuta, hobe da etorriko den errege-dekretua indarrean jarri arte itxarotea, horrela jakingo baita zein diren behin betiko arauzko edukiak, batez ere, sistema, konponbide eta zerbitzu elektronikoei dagozkienak eta Administrazioan aplikatu beharko diren administrazio elektronikoen arloko funtsezko aldaketei dagozkienak. Horren ostean, ikuspegi juridiko argiago bat egongo da, eta hasi ahal izango da egiten administrazio elektronikoen dekretua; zeina ordurako oso beharrezkoa izango baita Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-prozedura gauzatzeko eta, administrazio-organoen eta interesdunen bitarteko elektronikoen baliatuta, Internet bidezko zerbitzu publikoak emateko eredia zehazteko.

Hala ere, gaur egun, komeni da Administrazio Elektronikoiari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan zenbait aldaketa egitea: lehenik, eduki berezi batzuk sartu behar dira, egun behar-beharrezkoak baitira administrazioaren ohiko jarduna bermatzeko, eta ezin baita itxaron dekretu berria onartu arte eduki horiek sartzeko; bigarrenik, eta bide batez, zenbait artikuluren erredakzioa aldatu behar da arauzko egokitzapenak egiteko, hain zuzen ere egun indargabetuta dauden legeei eta administrazio elektronikoen arloko xedapen zaharrituei buruzko erreferentzien ordeztasunaz lege berriei buruzkoak sartzeko; eta, hirugarrenik, legedi berriak babesik gabeko utzitako xedapenak kendu behar dira, arauaren testua argiago izan dadin.

Hiru beharrezko horiek betetzeko, nahikoa da orain indarreko araudian aldaketa puntual bat egitea; hiru alderdi zehatz horietan baino ez, aldaketa egiteko erregelamendu-proiektu baten bidez; proiektu hori, onartu ostean, osorik txertatuko da aldatzen den erregelamenduaren testuan.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan erregelamenduak egiteko ahala baliatzeko erregulazio onaren printzipioei buruz xedatutakoari dagokionez, orain arte azaldutakoak nahiko justifikatzen du proiektuan honako printzipio hauek betetzen direla:

- erregelamendu-aldaketa honen beharrezkotasuna, argi identifikatu delako zein diren lortu nahi diren helburuak eta oinarritzat hartu baita interes orokorra;
- proportzionaltasuna, arauak bete behar dituen beharrezkotasunari erantzuteko ezinbesteko erregulazioa daukalako;
- efikazia, printzipio hori bermatzeko tresnarik egokiena delako;
- efizientzia, onartu ostean desagertuko direlako karga administratibo alferrikakoak edo ezinbesteko ez direnak, eta, aplikazioan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatuko delako;
- segurtasun juridikoa, Espainiako eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoa-erikiko koherentziari eusten diolako;
- eta gardentasuna, indarreko araudirako irispide erraza, unibertsala eta eguneratua ahalbidetzen duelako, bai eta araudia prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuetarako irispidea ere, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren

9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritako moduan; izan ere, argi definitu dira helburuak eta justifikazioa, eta aukera emango da hartzaile izan daitezkeenek parte-hartze aktiboa izan dezaten prestakuntzan.

Hori guztiori dela eta, dekretu honen xedea da bigarren aldaketa bat egitea Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuari. Aldaketok honela daude zehaztuta:

– Hamabost eduki hauek sartzea: 5. artikulua 3. paragrafoa aldatzea, administrazio-prozedurako dokumentaziorako hizkuntza-araubidearen aukerari buruzkoa; 6. artikulua 1., 6. eta 7. paragrafoak aldatu eta 9. paragrafo bat gehitzea, interesdunek administrazio-prozedurara ekarri behar dituzten dokumentuei buruzkoak; 7. artikulua 3. paragrafoa aldatzea, egoitza elektronikoa sartutako entitateen eremua zabaltzeari buruzkoa; 9. artikulua 1. paragrafoaren i) apartatua zerbitzu batzuk sartzea, egoitza elektronikoa barruan; 12. artikulua 2. paragrafoa aldatzea, ezartzeko ezen gaikuntzarako nahikoa dela interesdunek ordezkari ematen duten administrazio-prozedurako organo eskudunaren ebazpena, eta, ondorioz, hitzarmenaren eskakizuna kentzea, oso nekeza delako eta zentzurik ez daukalako aipatutako 39/2015 eta 40/2015 legeak onartu ondoren; 13. artikulua 1. paragrafoa aldatzea, ahalordeen erregistro elektronikoa buruzkoa, legedi berriaren edukien arabera; 28. artikulua 1. paragrafoa aldatzea, administrazio-prozeduratan pertsona fisiko batzuen kolektiboek nahitaez bitarteko elektronikoen bidez komunikatu behar izateari buruzkoa; 50. artikulua 4. paragrafo bat gehitzea, eredu elektronikoei buruzkoa; 53. artikulua 3. paragrafoa aldatzea, interesdunak prozeduraren izapidetze-egoez iristeko bete beharreko baldintza bakarrari buruzkoa, hau da, identifikazioari buruzkoa; eta 55. artikulua 2. eta 4. paragrafoak aldatzea, xedapen gehiago sartzeko, administrazio elektronikoa zerbitzu erkideei buruzkoak.

– Artikuluetak hamalau zatiren erredakzioa aldatzea, behar diren arauzko egokitzapen hauek egiteko: indargabetu diren lau legeren aipamenak kentzea eta, haien ordez, kasuan kasuko araudiaren aipamen generikoak jartzea (1. artikulua 1. paragrafoan, 3. artikulua, 6. artikulua 1. paragrafoan, 42. artikulua 3. paragrafoan, 43. artikulua 1. paragrafoan, 50. artikulua 2. paragrafoaren b) apartatua, eta lehenengo xedapen gehigarria); «ordezkarien erregistro elektronikoa» aipamenaren ordez, indarrean dagoen «ahalordeen erregistro elektronikoa» jartzea (1. artikulua 2. paragrafoan, 13. artikulua 1. paragrafoan eta 55. artikulua 2. paragrafoan); lankidetzaren hitzarmena kentzea dekretuaren aplikazio-eremuan dauden erakundeak egoitza elektronikora biltzeko (7. artikulua 4. paragrafoan); egoitza elektronikoa helbidearen izendapena bigarren aldatu eta «egoitza» hitza txertatzea, beharrezkoa baita irispidea izateko (7. artikulua 5. paragrafoan, Interneteko goi-mailako «euskadi.eus» domeinu berria ezartzen duen ekainaren 9ko 84/2015 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenean jasotako bertsioan); eta ezartzea prozedura bide elektronikoz bakarrik izapidetu ahal izango dela, bazter utzita otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 53. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako bestelako izapidetze-aukerak.

– Hamar eduki hauek kentzea: 6. artikulua 2., 3., 4. eta 8. paragrafoak, herritarrek administrazio-prozeduran behar den dokumentazioa ez aurkezteko daukaten eskubidea baliatzeari buruzkoak, oinarri berriekin bat; 9. artikulua 1. paragrafoko o) apartatua, hitzarmen batzuk egoitza elektronikoa argitaratzeari buruzkoa; 12. artikulua 3. paragrafoa, gaikuntza-hitzarmena ez betetzeari buruzkoa; 14. artikulua 3. paragrafoko bigarren esaldia, hitzarmen bidez gaitutako funtzionarioen erregistroaren esparruari buruzkoa; 29. artikulua 2. paragrafoa, administrazio-organoen arteko komunikazio elektronikoei buruzkoa; 49. artikulua, konpultsatze-ondorioetarako kopia elektronikoa lortzeari buruzkoa; eta bigarren xedapen gehigarria, prozedurak eta zerbitzuak egokitzeari buruzkoa. Eduki horietako batek ere ez dauka babesik oinarriko lege berrietan araututakoaren arabera.

Horiek horrela, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazitakoa entzunda, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko apirilaren 21ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua aldatzea, honela:

Lehenengoa.– 1. artikulua, xedeari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da herritarrek Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko duten eskubidea garatzea, zerbitzu publikoetara iritsi daitezten eta administrazio-prozedurak izapidetu ditzaten, eta, horretaz gain, administrazio-prozeduraren legeek aitortzen dituzten gainerako eskubideak zabaltzea.

2.– Halaber, gai hauek arautzen ditu: egoitza elektronikoa, iragarki-taula elektronikoa, herritarren eta administrazioaren identifikazioa eta autentifikazioa, ahalordeen erregistro elektronikoa, erregistro elektronikoa, komunikazio eta dokumentu elektronikoak eta dokumentuon kontserbazioa.»

Bigarrena.– 3. artikulua, printzipio orokorreari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«3. artikulua.– Printzipio orokorrak.

Administrazioak, bitarteko elektronikoak erabiltzeko orduan, datu pertsonalak babesteko eskubidea errespetatuko du, eskubide horren araudian eta administrazio-prozeduraren legedian xedatutakoarekin bat etorritik.»

Hirugarrena.– 5. artikulua 3. paragrafoa, hizkuntza-araubideari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«3.– Izapideen edozein unetan aldatu ahal izango da aukeratutako hizkuntza. Aldatuz gero, lehenagotik dauden dokumentuak hasieran aukeratutako hizkuntzan geratuko dira. Idatzita dauden hizkuntzan geratuko dira, halaber, administrazio publikoek beren esku dauzkaten, egin dituzten edo interesdunak lehenagotik eman dizkien dokumentuak.»

Laugarrena.– 6. artikulua 1. paragrafoa, datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubideari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«1.– Interesdunek eskubidea daukate administrazio-prozeduretan ez aurkezteko edozein administrazioaren esku dauden edo edozein administrazio prestaturako jatorrizko dokumentuak, datuak eta dokumentuak, aplikatzeko den araudian eskatzen ez badira, edo interesdunak berak alde aurretik edozein administrazioari aurkeztu badizkio; administrazio jarduleak gauzatuko du eskubide hori, administrazio-prozeduraren legedian aitortutakoarekin bat etorritik.»

Bosgarrena.– Datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubideari buruzko 6. artikulua 2., 3., 4. eta 8. paragrafoak kentzen dira.

Seigarrena.– 6. artikulua 6. paragrafoa, datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubideari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«6.– Prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak datuak edo dokumentuak eduki ezean, badauzkan organoari eskatuko dizkio, eta elektronikoki eskuratu behako ditu sare kor-

poratiboaren bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoa batzuetan kontsultak eginez.»

Zazpigarrena.– 6. artikularen 7. paragrafoa, datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubi-deari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«7.– Salbuespen gisa, prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak ezin baditu datuak edo dokumentuak lortu, interesdunari jakinarazi eta arrazoia azalduko dio, berak aurkez ditzan, kasuan kasuko prozeduraren arau erregulatzailan adierazitako epean eta ondorioekin. Salbuespen gisa ere, interesdunari eskatu ahal izango zaio jatorrizko agiria aurkezteko, edo aurkeztutako kopiak erkatzeko, jatorrizko dokumentua erakutsita, administrazio-prozeduraren legedian xedatutakoarekin bat etorritik.»

Zortzigarrena.– 6. artikularen 9. paragrafo bat gehitzen zaio, honela idatzita:

«9.– Lege berezi aplikagarriak badauka interesdunaren baimen espresua eskatzea Administrazioak dokumentuak lor ditzan. Horretaz gain, interesdunak espresuki uka dezake baimen hori, salbu eta zehatzeko edo ikuskatzeko ahalen erabileran eskatzen badira dokumentuak.»

Bederatzigarrena.– 7. artikularen 3. paragrafoa, egoitza elektronikoa buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«3.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organo guztiak egongo dira egoitza elektronikoa barruan.»

Hamargarrena.– 7. artikularen 4. paragrafoa, egoitza elektronikoa buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«4.– Lankidetzaren bidez sortu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuekin partekatutako egoitzak.»

Hamaikagarrena.– 7. artikularen 5. paragrafoa honela idatzita geratuko da:

«5.– Egoitza elektronikoa helbide elektronikoa hau da: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>».

Hamabigarrena.– 9. artikularen 1. paragrafoko i) apartatua, egoitza elektronikoa edukiari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko administrazio elektronikoa egotzako zerbitzu erkide erabilgarriak; besteak beste, hauek izango dira gutxienez: prozeduren fitxak, erregistro orokorra, ahalordeen erregistro orokorra, izapidetze elektronikorako eta kopia autentikoak egiteko gaitutako funtzionarioen erregistroa, izapideen kudeatzailea, eredu espezifikoen kudeatzailea, prozedurak hasteko eskabideen aurkezpen masiboetarako sistemak eta sistema normalizatuak, jakinarazpenak, fitxategi bakarra, ordainketa-pasabidea, datu-bitartekaritzarako plataforma, eta herritarren karpeta.»

Hamahirugarrena.– Egoitza elektronikoa edukiari buruzko 9. artikularen 1. paragrafoko o) apartatua kentzen da.

Hamalagarrena.– 12. artikularen 2. paragrafoa, ordezkatzeko gaikuntzari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«2.– Gaikuntza, oro har, kasuan kasuko administrazio-jarduketaren arloan eskumena duen organoak emandako legezko edo arauzko xedapenen bidez gauzatuko da; edo, bestela, modu

espezifikoa, interesdunek ordezkariak eman behar duten kasuan kasuko administrazio-prozeduratan ebazteko eskumena duen organoak emandako ebazpen baten bidez. Gaikuntzan, zehaztu beharko da zein diren gaitutako ordezkaria izendatzeko baldintzak, eta barnean sartu beharko dira gaikuntzaren xede diren prozedurak eta izapideak.»

Hamabosgarrena.— Ordezkatzeko gaikuntzari buruzko 12. artikularen 3. paragrafoa kentzen da.

Hamaseigarrena.— 13. artikularen 1. paragrafoa, ordezkarien erregistro elektronikoa buruzkoa, eta, ondorioz, 13. artikularen titulua honela idatzita geratuko dira:

«13. artikulua.— Ahalordeen erregistro elektronikoa.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko ahalordeen erregistro orokorra sortzen da; erregistro horretan, nahitaez hauek behintzat jasoko dira: apud acta, presentzialki edo elektronikoki emandako ahalorde orokorrak, interesdunek administrazio-prozeduratan hirugarrenei ematen dizkietenak euren izenean administrazio publikoetan jarduteko. Horrekin batera, ahal bakoitzaren askiestea ere adierazi beharko da. Erregistro hau ez da erregistro publikoa.»

Hamazazpigarrena.— 14. artikularen 3. paragrafoa honela idatzita geratuko da:

«3.— Administrazio elektronikoa daukan sailaren ardura da artikulua honetan araututako identifikazio eta autentifikaziorako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan gaitzen diren funtzionarioen erregistroa eguneratuta edukitzea.»

Hemezortzigarrena.— 28. artikularen 1. paragrafoa, bitarteko elektronikoen bidez komunikatzeko nahitaez kotasunari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«1.— Administrazioak, erregelamenduz, behartu ahal izango du berarekiko komunikazioa bitarteko elektronikoa hutsez izatera zenbait prozeduratan, baldin eta egiaztaturik badago interesdunek (pertsone fisikoak) gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, ardura profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik badutela bitarteko elektronikoa irispidea eta bitarteko horiek erabiltzeko modua.»

Hemeretzigarrena.— Administrazio organoen arteko komunikazioei buruzko 29. artikularen 2. paragrafoa kentzen da.

Hogeigarrena.— 42. artikularen 3. paragrafoa, dokumentu elektronikoa kudeatzeari buruzkoa, honela idatzita geratuko da:

«3.— Dokumentu elektronikoa datu pertsonalik baldin badago, datu pertsonalak babesteari buruzko legedian xedatutakoa aplikatuko zaie.»

Hogeita batgarrena.— 43. artikularen 1. paragrafoa, kopia autentikoa egiteari buruzkoa, honela idatzita geratuko da:

«1.— Horretarako eskumena daukaten administrazio-organoei edo organismo publikoek egingo dituzte kopia autentikoa, eskumenei eta prozedurei buruzko arauekin bat. Arauok administrazio-prozeduraren legedian eta administrazio publikoen araubide juridikoaren legedian daude ezarrita.»

Hogeita bigarrena.— Konpultsarako kopia elektronikoa lortzeari buruzko 49. artikulua kentzen da.

Hogeita hirugarrena.– 50. artikulua, eredu elektronikoei buruzkoa, honela idatzita geratuko da:

«50. artikulua.– Eredue elektronikoa.

1.– Administrazioak interesdunen eskura jarriko ditu, egoitza elektronikoa, eskabide-eredue elektronikoa eta gainerako agiri eta izapideen eredu elektronikoa.

2.– Eredue elektronikoa Administrazio Elektronikoaren eskumenak dituen zuzendaritzaren jarraibideen arabera egingo dira.»

Hogeita laugarrena.– 50. artikuluariko 4. paragrafoa gehitzen zaio, eredu elektronikoei buruzkoa, honela idatzita:

«4.– Prozedurak hasteko eskatzeko eredu espezifikoak eta sistema normalizatuak administrazio-prozeduraren legedian daude aurreikusita, eta honako hau ahalbidetuko dute:

a) Zati elektronikoa dinamikoak sartzeari; zatiok osorik zabalduko dira interesdunek betetzen dituzten unean, eta, bete gabe daudela, ezin izango dute irudi estatikorik izan. Horretarako, prozeduren arau erregulatuak helbide elektronikoa baino ez dute emango, non lokaliza daitezkeen jakiteko.

b) Emandako informazioa automatikoki egiaztatzea, sistema propioetan edo beste Administrazio batzuen sistematan biltegitratutako datuekin alderatuta; edo hasiera emateko eskabidea eskaintzea, guztiz edo partez beteta, interesdunek informazioa egiaztatzea eta, hala badagokio, alda eta osa dezaten.»

Hogeita bosgarrena.– 53. artikuluariko 1. paragrafoa, interesdunek prozeduraren izapideak zertan diren jakiteko irispideari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«1.– Administrazioak informazio-zerbitzu elektronikoa bat jarriko du interesdunen eskura, egoitza elektronikoa, prozeduren izapideen egoerari buruzko informazioa kontsultatu ahal izateko.»

Hogeita seigarrena.– 53. artikuluariko 2. paragrafoa, interesdunek prozeduraren izapideak zertan diren jakiteko irispideari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«2.– Prozeduraren izapideen egoerari buruzko informazioan, egindako izapideen eta izapideen datuak berri emango dira. Halaber, dokumentu elektronikoa irispidea izango dute interesdunek.»

Hogeita zazpigarrena.– 53. artikuluariko 3. paragrafoa, interesdunek prozeduraren izapideak zertan diren jakiteko irispideari buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«3.– Prozeduraren izapideen gaineko informazioa izateko, interesdunak alde aurretik identifikatu behar du bere burua, administrazio-prozeduraren legedian adierazitako edozein identifikazio-bideren bidez.»

Hogeita zortzigarrena.– 55. artikuluariko 2. paragrafoa, administrazio elektronikoa arloko zerbitzu erkideei buruzkoa, honela idatzita geratuko da:

«2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren administrazio elektronikoa arloko zerbitzu erkideak herritarrek eskura izango dituzten sistema edo konponbide informatikoak izango dira, gutxienez: erregistro orokorra, ahalordeen erregistro orokorra, izapidetxe elektronikoa eta kopia autentikoa egiteko gaitutako funtzionarioen erregistroa, egoitza elektronikoa prozeduren fitxak, identifikaziorako eta sinadurarako sistema, izapideen kudeatzailea, eredu espezifikoaren kudeatzailea, prozedurak hasteko eskabideen aurkezpen masiboetarako sistemak, jakinarazpenak, herritarren karpeta, fitxategi bakarra, ordainketa-pasabidea, datuak eta dokumentuak egiaztatzeke zerbitzuak, datu-bitartekaritzarako plataforma, iragarki-taula, zerbitzu-katalogoa,

eta kexa eta iradokizunen postontzia. Informazio, zerbitzu eta transakzioetarako zerbitzu erkide gehiago sortu ahala, erabiltzaileei eskainiko zaizkie egoitza elektronikoan argitaratuta.»

Hogeita bederatzigarrena.– 55. artikulua 4. paragrafoa, administrazio elektronikoaren arloko zerbitzu erkideei buruzkoa, honela geratuko da idatzita:

«4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo guztiek eta Administrazio instituzionaleko organismo autonomo guztiek nahitaez erabili beharko dituzte administrazio elektronikoaren zerbitzu erkide hauek, administrazio-prozedurak izapidetzeko kudeatzen duten informatika-sarean. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten beste entitate batzuek ere erabili ahal izango dituzte administrazio elektronikoaren zerbitzu erkide horiek, aukeran, zuzenbide publikoari loturiko prozeduretan. Beste administrazio publiko batzuek ere erabili ahal izango dituzte administrazio elektronikoaren zerbitzu erkideak, gai horretaz izenpetutako administrazioarteko hitzarmenen bidez.»

Hogeita hamargarrena.– Lehenengo xedapen gehigarria, prozedura bereziei buruzkoa, honela idatzita geratuko da:

«1.– Dekretu honetan xedatutakoak ez du eragotziko sektore publikoaren kontratuen legedian bildutako erregulazio berezia betetzea.

2.– Dekretu honetan xedatutakoak ez du eragotziko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko araudian bildutako erregulazioa betetzea.»

Hogeita hamaikagarrena.– Prozedurak eta zerbitzuak egokitzeari buruzko bigarren xedapen gehigarria kentzen da.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.